

Berri ona

Euskaldunon Egunkaria, 1997-10-28: 3.

EAJ eta EA formalki hizketan hasi direla eta, bi berri pozgarri jaso ditut: abertzaleen gozamina eta espainolisten alarma. Baieztatzen dut somatzen genuena: zentralismo espainola gure zatiketaren kontura bizi dela. Okerra zuzentzeko ez da inoiz berandu; funtsezko errakuntza, oker hori ez zuzentzea izango litzateke. Badakit bilkura bat ez dela kanpaia jotzen hasteko, eta bidezko dira alde batetik eta bestetik hartu diren kauzioak, dena egiteko dago oraindik eta, baina, bestalde, diskretuki bildu egin dira behin bi laukote esanguratsu gure herriko arazo arriskutsuenak agendan dituztela.

Eta ez koalizio bat osatzeko asmo handietan.

Agian ez da komeni ere une honetan, zeren bitasunak, elkarrekin jokatzeko bada, baditu gaur abantaila politikoak.

Eta hemen argi, efikaziaz, jokatu behar da.

Garrantzi nagusia duena bilkura bera da, eta honen emaitza itxaropentsu eta sotila. Hau da babestu behar genukeen grazia. Gogoan dut honelakotan Agirre lehendakariak sarri errepikatzen zuena: Erasmo europarzialeak bezala jokatu behar dugula, baikor eta diskretu; eta ez dunbotu eta auskari Lutero gisa.

Gerauek izan dugu nahiko eskarmentu! *Berri ona* tituluarekin ez nator Ebanjelioaz hitz egitera, gertuagoko eta profanoa den zerbaitetaz baizik. Europaren birsorreran agian biblia politikako aukeren momentua ailegatzan ari zaigunean, gure inguruan sortzen ari diren estatu berrien une berean, askatasun txiki, handi edo hutsalaren artean erabakitzeke unea izan daitekeenean, geuk Estatutuaren falta diren lorpenak, tinko lortzen izan behar genuke, sor zaizkigulako.

Europako trena pasatzen ari da dagoeneko, agian laster agertuko zaigu gure geltokian, eta ez gaitzala lotan edo gure arteko istiluetan ahulezia honetan harrapatu.